

URTEKO TXOSTENA

2017

EKINTZÄÄLUVIZ

AYUDA A LUDOPATAS DE BIZKAIA • BIZKAIKO LUDOPATENTZAKO LAGUNTZA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena, misioa, ikuspegia eta balioak.....	3. orr
2. Gobernu-Organoak eta taldea.....	5. orr
3. Ludopatia.....	7. orr
4. Programk eta zerbitzuak.....	10. orr
4.1. Laguntza psikologikoa.....	10. orr
4.2. Lan soziala.....	10. orr
4.3. Aholku juridikoa.....	10. orr
4.4. Talde-lana.....	11. orr
4.5. Senideentzako laguntza programa.....	14. orr
4.6. Prebentzio-programak.....	16. orr
4.6.1. Prebentzioko jarduera nabariak eta beste batzuk.....	17. orr
4.7. Boluntarioak.....	19. orr
4.8. Hartutako pazienteen profila.....	20. orr
4.9. Datu estadistikoak.....	23. orr

1. AURKEZPENA



Beste urte bat laguntza ematen jokoak zuzenki eta zeharka eragin dien pertsoneri eta argi pixka bat jartzen.

Teknologiak etengabe aldatzen eta joko berriak agertzen dira, baina beti heltzen zaigun oihua berdina da: Laguntza behar dut!

Ekintzak ia 30 urte hauetan bere bizkarrean min-testigantzez betetako istorioz osatuta dago; istorioek fikzioa gainditzen dute, amorrua sortzen dute eta itxaropena galtzeko arriskua dago, baina ez da galdu behar.

Monitoreen gauzarik nabarmenena, ematen duten maitasuna da. Inolako zalantzarik Gabe pertsonik egokienak dira jokoari aurre egiteko. Haiek bizi eta sufritu izan dute gixotasun hau. Teknikariak, tratamendua ikuspegi profesionaletik enfokatu arren, babesa eta arreta ere erakusten dute.

Ekintza-Aluviz-ek gaixotasun honi esker aberasten diren entitate eta pertsona guztien kontra dago. Ez gara isilduko, kementsuak izaten jarraituko gara, ludopatia sortzen duren “etsai” guztien kontra.

Lehendakari bezala, animatzen zaituztet borroka jarraitzeko, gaurko egunera arte egin duzuen moduan. Zuengatik, elkartegatik, eta arreta ematen diegun pertsonengatik, batez ere.

Amaitzeko, maite gaituzten pertsona guztiei eskertu nahi diet, jakinda izan, nortzuk garen eta nortzuk izango garen. Aspaldi, nik errementari bat baino gehiago izatea erabaki nuen.

MISIOA

EKINTZA ALUVIZ irabazteko asmorik gabeko erakundea da, 1989an jaiota, beraz, 2017 honetan 28 urte bete ditu solidaritateko buruzagi bezala eta bere laguntza ematen joko patologikoagatik eragindako pertsonen eta senideen.

1993. urtetik FEJAR-ren parte gara (Birgaitutako Zori-Jokalarietako Espainiako Federazioa). FEJAR-en Kideekin batera, herrialde osoko probintzietan zehar 20 erakunde izanik eta Eskualdeko Federazio baten ondoan, guztiok batera, ludopatia lantzen dugu egunero.

Denboran zehar talde honetan eman ahal diren aldaketei eta esku-hartze tipologiari erantzun egokiak ematea:

- ❖ Ludopatia sufritzen duten pertsona-kopuruaren gehikuntza hainbat ondorietagatik: jokorako erraztasunak, teknologia berrien oldarra, gizarteko normalizazioa, eta kontsumitzaileei iristen den publizitatea.
- ❖ Arreta espezifikoaren mendetasun mota hau pairatzen duten pertsona kalteberenei

IKUSPEGIA

BALIOAK

- ❖ Talde-Lana
- ❖ Gardetasuna
- ❖ Konpromisoa
- ❖ Errespetua eta konfiantza
- ❖ Hurbiltasuna
- ❖ Entzutea eta errespetua

2. GOBERNU-ORGANOAK

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

JON ANTON. Boluntario

LEHENDAKARIA

JESÚS RODRÍGUEZ. Boluntario

LEHENDAKARI-ORDEA

PEDRO ZUAZNABAR. Boluntario

IDAZKARIA

LUÍS BERMEJO. Boluntario

DIRUZAINA

BATZORKIDEAK

JOSEBA ARROYO. Boluntario

JAVI CUEVAS. Boluntario

MIKEL ESTEFANIA. Boluntario

JOSEBA MAESO. Boluntario

TALDE TEKNIKOAK


IZASKUN BETES. Abokatua

ESTÍBALIZ RODRÍGUEZ. Psikologoa

ILLARGI ZARATE. Psikologoa

MARIA TAULATS. Gizarte-langilea

Organigrama



3. LUDOPATIA

Jokoak pertsona baten garapenean lagundu dezake, haurtzaroan batez ere baita helduaroan ere. Bizitzaren zikloan onura eta asetze asko eman ditzake baina horren gainera, ikasteko erarik egokiena da eta ikasketa hori, era dibertigarri eta ludikoak izateko ideala da.

Hala ere, apostuekin egiten diren jokoak alde kaltegarriak dituzte, kontrolrik gabe erabiltzen badira edota helburua entretenimendu hutsa ez bada edota helburua soilik dirua lortzea bada:

Horregatik, jokalaria-tipo desberdinak bereizten ditugu:

1. Koadroa: Jokalari-tipoak. Labrador eta Becoña (1994), 2011ko *Euskadi Autonomia. Erkidegoaren IV, Adikzioen Planean Aipatuta (2011-2015)*.

Denboran zehar eta gaur ere bizio bat bezala ikusten denean, adikzio baten inguruan hitz egiten ari gara, batez ere, gizarteak informazio eskasa izateagatik.

Funtsezkoena, familian eta batez ere gaixoan adikzio bat bezala ulertzea da,



Gaixoak bere tratamenduari buruz jarrera aktiboa hartzen du. Tipo psikologikoko gaixotasuna da.

Gaur egun, DSM-5ean (2014), Buruko Osasunean Diagnostiko Eskuliburuan, profesional klinikoek eta osasunaren zientzietako ikertzaileek diagnostikatu ahal dezatela nahi da. Haien helburua, ikasi eta informazioa trukatu eta trastorno psikologiko ezberdinak tratatzea da. Ludopatia fokuratzeko du hura; ludopatia jokaera menpekotasun bat bezala hartzen da, hau da, sustantziarik gabeko menpekotasuna. Sustantzia-Kontsumoarekin gertatzen den moduan (1993, OME), jokaera ematen jarraitzen da nahiz eta aurkako ondorioak eman. Estutasuna, depresioa etab. ematen dira edozein sustantziekin batera bezala, alkoholak izaten dituen gaitz berdinak izan ahal ditu. Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak Droga-Mendekotasunetako eta Menpekotasunen Arreta Integralekoa, lodupatiatik, jokoak adikzio bezala kontuan hartzen du.

Pertsona bat jolasten hasten denean, pixkanaka-pixkanaka saila garatuz doa eta fase desberdinetatik pasatzen da;

- *Jokalaria irabazi fasean* (irabazien pasarteetan) maiztasun gehiagorekin apustuak egiten hasten da.
- *Galera fasean*: jokalaria galdutakoa berreskuratzeko jolasten hasten da. Zorrek, maileguez, irabazteko etsipena ematen da eta dirua eskatzen diote familiari. Orain jokalariai tregua egin ohi du haiekin, hau da, zorrak familiak estaliko duen akordiora iritsi ohi dira eta berriro ez duela jolastuko aipatzen du. Normalean puntu honetan aurkitzen direnean, ez da horrela izaten eta jokalariai berriro ere jolasten du. Trego hau suntsigarria da jokalariaientzat, bere erantzukizunak ez dituelako onartzen.
- *Etsipen-fasea*: izua agertzen hasten da hainbat faktoreengatik: zor handia, dirua bizkor itzultzeko nahia etab.

Gehienetan etzipen-fasean izaten da pertsona batek laguntza bilatzen duenean edo familiar batek harrapatzen duenean. Sortzen dituen ondorioengatik, antzematea, erraza izan leike. Hauetako batzuk dira:

Arlo pertsonala:

*isolamendua,
gezurrak,
estutasuna,...*

Lan arloa:

*errendimendu
baxua, lapurketak,
kaleratzea,
zigorrak,...*

Arlo

ekonomikoa:

*zorrak (familiarrei
maileguak,
kredituak,...)*

Arlo familiarra:

*eztabaidak,
mesfiadantza,
komunikazio eskasa,...*

Ingurune soziala:

*bikotetik, familiaratik,
lagunetik etab. urruntzea.*

4. PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

Ekintza-Aluviz-en modelo kognitibo-konduktual-gatik lan egiten da. Tratamenduan darabiltzagan estrategiak paper erabakigarria dauka jokaera moldatugabeko patroigarakopenean. Pazienteek identifikatzen eta jokaera arazotsuak zuzentzen ikasten dute, hainbat trebetasun aplikazioaren bitartez, jokoaren gehiegizko erabilera eteteko erabil daitezela, eta aldi berean izan ohi diren beste arazo batzuei ekitea. Hartarako, talde anitz batekin kontaktzen dugu, sarean lan egiten duenak, koordinazio desberdin bitartez, beste entitate eta baliabideekin (sozialak eta osasunekoak).



4.1. Laguntza psikologikoa

Honen helburua tratamendua osatzea da pertsonaren osotasuna kontuan izanda: honen nortasuna eta egoera propioak

4.2. Lan soziala


Diagnostiko soziala, aholkua eta erabakiko laguntza arazo sozioekonomiko eta sozioheziketan, eremu familiarren eta pertsonalan.

3.3. Aholkularitza juridikoa

Pazienteei orientazioa eta legeen inguruko aholkuak, zorrei eta eduki dezaketen beste arazo legalei buruz.

4.4. Talde jarraipena

Ekintza-Aluvizeko joko patologikoaren errehabilitazioa hainbat fase ekartzen ditu, haietako bakoitzak funtzio eta helburu zehatzekin.



HARRERA

Elkarteko boluntarioek burutzen dute. Gaixoaren eta euskari-pertsonaren datuak jasotzen dira. Helburua, psikopatologia honetako kontzientzia da, honen larritasuna, eta esku-hartzearen beharra. Jokoaren gaineko informazioa eta gaixotasunaren nondik norakoak eskaintzen da. Garrantzitsua da euskarri-pertsona harreran egotea, hau pazientearen errehabilitazioaren bidean, pazientearen laguntza izango delako. Jarraibide batzuk gomendatzen dira: kontrol ekonomikoa, ohitura-aldaketak, eta jokorik ez.

1GO FASEA: ALDAKETARAKO

Kontrol ekonomikoa

- Tiketen aurkezpena eguneroko gastuak justifikatzeko
- Kontuak amankomunean jarri.
- Egunean beharrezkoa den dirua soilik eskura izatea.
- Afektatua den pertsona ez ditu izango ez txartel ez bankuko libretarik.

Ohitura aldaketak

- Joko toki espezifikoetan sartzea ekiditu (kasinoak, joko saloiak, apustu lokalak, etab.)
- Joko jokabidea, ematen ziren tokiak, ekiditu.
- Denbora librea betetzea.

Zero joko

- Apustu edo zori jokorik ez (nahiz eta gustokoen duen joko mota ez izan).
- Apusturik gabeko jokoak ez dira arriskutsuak ez badute eragin negatiborik eguneroko bizitzan.
- Auto-debekua kasino eta bingoetan.

Lehenengo fase honen helburu nagusia, joko patologikoan afektatua den pertsona patologia honen larritasunaren kontzientzia hartzea da; aldaketarako motibazioa bultzatu ahal izateko. Gaixotasunari buruz hitz egiten dugunean, argi utzi beharra dago gaixoak edo pazienteak paper aktibo bat duela bere errehabilitazioan eta ez daudela bide farmakologikorik joko patologikoa konpontzen dutenak.

Aipatutako jarraibideak ere harrera fasean indartu egiten dira. Fase hau pertsona bolondres baten eta langile sozialaren esku daude



2.FASEA: ESKU-HARTZEA JOKABIDEAN

Talde-terapia, Ekintzan erabiltzen den baliabide lan terapeutiko erabilgarriena da. Esku-hartze mota hau oso onuragarria da, beste ikuspuntuak ikustera laguntzen duelako, baita lan-sinergia, hazkunde jarraitua eta sorrera lortzen duelako ere.

Autolaguntza fase honetan, ludopata birgaituek koordinatzen dute, era boluntario batean, bere esperientzia taldeari eskainiz, bakoitzaren birgaitzea lortu ta gero.



Boluntarioek taldekideen helburua lortzera motibatzen diete; abstinentsia lortzeko eta motibazioa sustatzeko eredu izaten dira monitoreak. Helbururik funtsezkoena jokabidearen kontrola da (jokoaren jokabidea ekiditea) lehen aipatutako jarraibideen bidez. Fase honetan lortu nahi diren beste hainbat helburu:

- ❖ Gaixotasunaren ezaguera.
 - ❖ Erlazio sozialak sustatzea.
 - ❖ Kohesioa eta talde kidetasuna.
 - ❖ Laguntza emozionala.
 - ❖ Konfiantza leku seguru bat sortzea.
 - ❖ Taldeko beste kideekiko eta ko-terapeutekiko identifikazioa.
- Joko patologikoari buruzko informazioa.

3ªFASEA: ELEMENTU PSIKOLOGIKOETAN ESKU-HARTZEA

Fase hau talde psikologoak eta monitore batek koordinatzen dute. Pertsona berreraikitzea da funtsezkoa, eta eguneroko bizitzan lagundu dezaketen baliabideak eskaintzea ere. Gai kognitiboak eta emozionalak landuko dira. Gai kognitiboak, pertsonak burutzen ditugun akats kognitiboak dira, adibidez: kontroleko ilusioa, laginaren tamainarako sorgortasuna, eskuragarritasuna, irudimenezko korrelazioa (pentsamendu magikoa, adibidez, “zortearen arkatza” erabili bingoaren zenbakiak markatzeko), norabidearen berrespena, zortea eta zoria nahastea). Gai emozionalei buruz, autoestimua, komunikazioa, arazoaren ebazpenean entrenamendua, emozioen identifikazioa eta hauen erregulazioa, besteak

beste tratatzen dira. Fase honek 25 sesio inguruk osatzen dute. Hauen artean, 2-4 sesio gaixoen familiekin batera egiten dira birgaitze prozesuan dabilzaten pertsonen prozesua baloratzeko helburuarekin.

JARRAIPENA

Jarraipena, bilera ezberdinaz osatuta dago; Amaitu osteko 1. hilabetera, hiru hilabetetara, sei hilabetetara eta urtera izaten da.

Fase honetan talde kideen eta elkartearen arteko dependentzia desagerrarazi nahi da. Honen helburua birgizarteratze egokia erraztea eta etapa berri honetan bakarrik ez sentitzea izango litzateke.

**4.5. Jokoarengatik afektatuak diren
familiarren senideentzako laguntza
programa**

Motibazio eta
erlazio
terapeutikoa

Sentimendu
eta emozioak

Adikzioa
ahalbidetzen
duten
jokabideak

Birgizarteratzea

Berrerortze
prebentzioa

HELBURUAK:

- Familiarrei ulermen ahalbideak ematea.
- Joko patologikoa pairatzen duten gaixoen tratua hobetzea.
- Laguntza ezinbestekoa, familiarrek oso garrantzitsuak baitira.
- Tratamenduan jarduerak indartzea eta sendotzea; hauen larritasunak eta nahasteak.



Urtero hirutan ematen dugu *Ludopatia jasaten duten familiarrentzako*. 13 sesiotan banatuta dago 3 hilabete inguruko iraupenarekin. Sesio horiek astero ematen dira. Asteazkenero izan ohi dira, 18:30etatik 20:00etara. Taldeak 30-40 kidekoak dira. Burutzen duten pertsonak, ikastaroa elkartean lan egiten duten langile sozialek eta joko patologiko gaixo birgaitu baten familiarrek burutzen dituzte.

4.6. Prebentzio programak

Jokoaren inguruan pentsamenduak, jokabideak eta portaerak aldatzeko helburua duten programak

Lehen mailako prebentzioa: Gizarteari zuzenduta. Helburu nagusiak: joko patologiko kontzeptuaren inguruan populazioa informatzea eta ludopatiaren ezaugarri eta ondorioak aztertzea. Jokalari sozial eta jokalari patologikoaren artean ezberdintzea garrantzitsua da.

Bigarren mailako prebentzioa: Arrisku taldeei zuzenduta; gazteak, hirugarren adinekoak, beste adikzioak dituzten pertsonak, langabetuak, etxeko andreak, etab. Joko patologikoarekin erlazioa duten arrisku jokaerak antzematea hasierako fasean aurkitzen diren arazoak aldatzeko helburuarekin.

Hirugarren mailako prebentzioa: Jokalari patologikoen eta hauen familiarren tratamendurako eta birgaitzerako bideratuta dauden jardueren martxan jartzea. Ezarritako helburu batzuk: joko patologiko arazoaren aurrean serbitzu espezifikoaren ezarpena, tratamenduen eraginkortasunaren ebaluazioa, abstinentziaren mantentzea (berrerortze prebentzioa), beste batzuen artean.

3.6.1. Prebentzio eta beste prebentzio jarduera nabariak

LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA

- *Erkidego-osasun astea* erkidego proiektuan parte-hartzea, Rontegin antolatua. Urtarrila-martxoa 2017.
- Komunikabide ezberdinetan elkarrizketak, arazoa ikustarazteko. Aipagarrienak:
 - ✓ Jon Antoni elkarrizketa, EkintzaAluvizen lehendakaria. Besaide programa, Ludopatia digital berria 2017/02/03
 - ✓ *Alerta de la juventud de los ludópatas* artikuloa Deia egunkarian. 2017/10/24
 - ✓ Jon Antoni elkarrizketa, EkintzaAluvizen nagusia eta Maria Taulatsi, langile sozialari, elkarrizketa Boulevard irrati programan. 2017/10/25
- Zorizko Jokorik Gabeko Egunaren ospakizuna Kepa Junkeraren eta Efecto Verdolagaren kontzertuekin. Urriak 29.

BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

- EAEko ludopatía erakunde ezberdinekin topaketa. 2017/04/08
- XVIII FEJAR kongresuan parte-hartzea, Valladoliden ospatua. Irailak 29, 30 eta urriak 1.



HIRUGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

- Ludopatian espezializatutako programa terapeutikoa. Tratamenduak orientazio kognitibo-konduktuala jarraitzen du. Ikuspegi hau erabiliena da mota guztietako dependentzietan eta birgaitze aukera handiagoak eskeintzen ditu. Urtero berrikusten eta aldatzen da eta elkartearantzat *ex proceso* diseinatua dago.
- Talde terapia eta bakarkako terapia, ludopatiarako birgaitzerako prozedura eraginkorrenak bezala zehazten dira.
- Osasun profesionalentzat ludopatiaren inguruko formazio ikastaroak.
- Berrerortze prebentzio programa

BESTE JARDUERAK

- Erakunde bazkaria EkintzaAluviz erakundearen talde guztiarekin, bai bolondres bai teknikoekin.
- Gabonetako jarduerak
- Bolondresen formakuntza kurtsoa

4.7. Boluntarioak


EkintzaAluvizen aktibo nagusia honen boluntarioak dira. Bi sexuetako pertsonak osatua dago, gizon eta emakume, ludopatia gaixotasuna izan dutenak edota hauen familiarrak direnak.

Era altruista eta eskuzabal batean zentruarekin laguntzen dute hauen esperientziarekin. Tratamendua amaitu ostean eta behin 2 urteko abstinentzia denboraldi minimo bat gainditua izanda, taldeko kideei erakundearen bolondres taldean sartzea eskeintzen zaie. Hau gerta dadin onarpena eta jarraibide batzuen gainditzea eta erakundearen barne talde teknikoak eskeinitako barne formakuntza beharrezkoak dira.

Boluntario bezala talde terapietan jarduteko gai hartzem dira adindun pertsonak edo emantzipatutako adingabeak eta beraien eskubidean jarduteko baldintza legalik ez izatea ezta limitaziorik izatea ebazpen judicial irmoen gaitasunean.



Voluntari@s



4.8. Hartutako pazienteen profila


2017an zentruan izandako jokalaria patologikoen profilak hurrengoak izan dira;

GIZONA: 31-70 urte bitartean, bakarrik jolasten du, ihesbide bezala. Urte askotako joko ibilbidea.

EMAKUMEA: 35-50 urte bitartean. Joko hasiera beranta. Askotan depresioarekin batera ematen da.

GAZTEAK: 18 urteetatik 30etara. Urte gutxiko ibilbidea jokoan. Adrenalina.

Arazoaren arabera




Ez da ahaztu behar substantzia gabeko beste adikzioak ere hartzen ditugula, baita erosketak konpulsiboak.

Joko patologikoa da ematen den adikziorik nabarmenena. Ezkerreko grafikoan ikus dezakegun moduan, joko mota ezberdinak daude.


Ondoren, beste grafika bat aurkezten dugu, bertan tratatzen ditugun joko mota ohikoenak agertzen dira baita hauen portzentaiak ere.

Ikusi dezakegunez, txanpon makinak joko problematikoen artean, lehenak izaten jarraitzen dute, kirol apostuak jarraituak; azken hauek gure gizartean gero eta eragin gehiago izaten ari dira.

Joko motak



1. Grafikoa: 2017. urtean hartutako pertsonak



2017. URTEAN EKINTZA-ALUVIZEN HARTUTAKO PERTSONA KOPURUA, BIZILEKUAREN ARABERA



ARTZINIEGA 1	SOPELA 4
AREETA 1	DERIO 3
AMPUERO 1	MUNGIA 2
ABANTOY 1	IGORRE 1
BILBAO 84	ELORRIO 1
BERRIX 1	IURRETA 2
LAREDO 1	AMURRIO 1
LEMOA 1	ARRIGORRIAGA 2
SESTAO 5	LARRABETXU 1
DURANGO 7	CASTRO 1
BARAKALDO 25	ORTUELLA 3
GETXO 3	TRAPAGARAN 1
GATIKA 1	LEIOA 5
GERNIKA 2	ZALLA 2
ALGORTA 3	LAUKIZ 1
SANTURTZI 6	AMOREBIETA 2
ASTRABUDUA 1	ZALDIBAR 2
BASAURI 7	PORTUGALETE 10
LEMOA 1	GURIEZO 1
GALDAKAO 5	MARKINA 1
OTXANDIO 1	ERANDIO 5
MUSKIZ 2	SONDIKA 2
VILARCAYO 1	EIBAR 1

4.9. Beste datu estatistikoak

2017. urtean zehar Ekintza-Aluviz-en arduratutako pertsona kopuru erreala:

Burututako akzioa	Número de personas atendidas
Langile sozial, psikologa eta abokatuek joko patologikoaren inguruan emandako euskarri eta aholkua.	317
Langile sozial, psikologa eta abokatuek sustantziarik gabeko adikzioen inguruan emandako euskarri eta aholkua.	6
Kaltetutako pertsonen familietan arreta edo laguntza.	345
ARDURATUTAKO PERTSONA ZENBAKI TOTALA	668

2013 eta 2017 urteen artean, ekaina arte, Bizkaian ludopatia eta erosketa konpulsiboak kontuan hartzen duen datu bilketa, Patirke Gutierrez Larak egindakoa (Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea – Deustoko Unibertsitatea).



* Txostenean zehar erakutsitako datuak asoziazio berera dagokion datu basetik lortuak izan dira

EKINTZÄÄLUVIZ

AYUDA A LUDOPATAS DE BIZKAIA • BIZKAIKO LUDOPATENTZAKO LAGUNTZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



EUSKADI *Guztu egizu*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADI *Sabertuta*

OSASUN SAILA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Dirección de Salud Pública y Adicciones

